

36 ohar performatibo.
(Austin, Butler eta Virnotik haratago)

Bizitza ematen ari zarela
bizitza ematen ari zarela esatea
edo esan gabe bizitza ematen ari zarela ikusgarri egitea

Maitasuna egiten ari zarela
maitasuna egiten ari zarela esatea
edo esan gabe maitasuna egiten ari zarela ikusgarri egitea

Larrua jotzen ari zarela
larrua jotzen ari zarela esatea edo
esan gabe larrua jotzen ari zarela ikusgarri egitea

Popatik ematen ari zarela
popatik ematen ari zarela esatea
edo esan gabe popatik ematen ari zarela ikusgarri egitea

Lurrikara bat eragiten ari zarela
lurrikara bat eragiten ari zarela esatea
edo esan gabe lurrikara bat eragiten ari zarela ikusgarri egitea

Etxe bat zure eskuekin eraikitzen ari zarela
etxe bat zure eskuekin eraikitzen ari zarela esatea
edo esan gabe etxea zure eskuekin eraikitzen ari zarela ikusgarri egitea

Norbaiti ukabilkada bat ematen ari zarela
norbaiti ukabilkada bat ematen ari zarela esatea
edo esan gabe norbaiti ukabilkada hori ematen ari zarela ikusgarri
egitea

Jauzi bat egiten ari zarela
jauzi bat egiten ari zarela esatea
edo esan gabe jauzia ikusgarri egitea

Bake itun bat sinatzen ari zarela
bake ituna sinatzen ari zarela esatea
edo esan gabe bake ituna sinatu duzula ikusgarri egitea

Pixa egiten ari zarenean
pixa egiten ari zarela esatea
edo esan gabe pixa egiten ari zarela ikusgarri egitea

Euria ari duenean
euria ari duela esatea

Sua ari duenean
sua ari duela esatea

Elurra ari duenean
elurra ari duela esatea

Hiltzera zoazela esatea

Artoartean zaudenean
artoartean zaudela esatea

Hiltzea

Hiltzen ari zarela esatea

Epaiketa batean,
epaiaren unea

Ezkontzan,
ezkontzaren unea

Ondo aterako da mantra bilakatzen ari zarela
ondo aterako da mantra bilakatzen ari zarela esatea
edo esan gabe ondo aterako da mantra bilakatzen ari zarela ikusgarri egitea

Ez daukat denborarik mantra bilakatzen ari zarela
ez daukat denborarik mantra bilakatzen ari zarela esatea
edo esan gabe ez daukat denborarik mantra bilakatzen ari zarela ikusgarri egitea

Queer bilakatzen ari zarela
queer bilakatzen ari zarela esatea
edo esan gabe queer bilakatzen ari zarela ikusgarri egitea

Madarikatua bilakatzen ari zarela
madarikatua bilakatzen ari zarela esatea
edo esan gabe madarikatua bilakatzen ari zarela ikusgarri egitea

Gorroto zaitut mantra bilakatzen ari zarela
gorroto zaitut mantra bilakatzen ari zarela esatea
edo esan gabe gorroto zaitut mantra bilakatzen ari zarela ikusgarri egitea

Maite zaitut mantra bilakatzen ari zarela
maite zaitut mantra bilakatzea
edo esan gabe maite zaitut mantra bilakatzen ari zarela ikusgarri egitea

Ez dut ulertzen mantra bilakatzen ari zarela
ez dut ulertzen mantra bilakatzea edo esan gabe
ez dut ulertzen mantra bilakatzen ari zarela ikusgarri egitea

Kalean ekintza bat egiten ari zarela
ekintza bat egiten ari zarela esatea
edo esan gabe ekintza egiten ari zarela ikusgarri egitea

Santo Tomas egunean txerria nola hiltzen ari diren ikusten ari zarela
txerria nola hiltzen ari diren ikusten ari zarela esatea
edo esan gabe txerria nola hiltzen ari diren ikusgarri egitea

Filme bat egiten ari zarela
filme bat egiten ari zarela esatea
edo esan gabe filme bat egiten ari zarela ikusgarri egitea

Pieza eszeniko bat egiten ari zarela
pieza eszeniko bat egiten ari zarela esatea
edo esan gabe pieza eszeniko bat egiten ari zarela ikusgarri egitea

Artefaktu bat egiten ari zarela
artefaktu bat egiten ari zarela esatea
edo esan gabe artefaktu bat egiten ari zarela ikusgarri egitea

Bertso bat egiten ari zarela
bertso bat egiten ari zarela esatea
edo esan gabe bertsoa kantatzea

Kantu bat konposatzen ari zarela
kantu bat konposatzen ari zarela esatea
edo esan gabe kantua abestea

Testu bat idazten ari zarela
testu bat idazten ari zarela esatea
edo esan gabe testua ozen irakurri eta testuari amaiera ematea